



Zer da transgeniko bat?

Propietate berriak lortzeko geneak gehituz aldatu den espeziea da transgenikoa. Gen hauek berarenak, aldatutako organismoarenak, edo beste bizidun batenak izan daitezke.

Trasgenikoen ia ekoizpen osoa lau laborek osatzen dute: soja, artoa, koltza eta kotoia.

Zein ondorio dituzte transgenikoek?

Arazo nagusia, transgenikoen ekoizpenaren eta elikaduraren benetako ondorioen inguruan dagoen informazio falta da, horregatik, prebentzio printzipioa aplikatzea eta transgenikoen garapena debekatzea beharrezkoa izango litzateke.

Baina dagoeneko, ondorio batzuk ziurtatuta daude:

- Nekazaritzan esaterako transgenikorik gabeko ekoizpena kutsatzen dute, multinazionalen menpe daude eta hazien kosteak areagotzen dituzte.
- Ingurumenean, biodibertsitatea gutxitzen da, produktu kimikoen erabilera ugartzen da eta espezie askotan osasunean, portaeran eta ugaltze ahalmenean aldaketak ematen dira.
- Osasunean, alergia gehiago agertu daitezke, antibiotikoekiko erresistentzia eragin dezakete, produktu kimikoek eragina dute eta ugaltzeko ahalmenean ondorioak ikusi daitezke.

Transgeniko gabeko Euskal Herria

%100 transgeniko gabea den nekazaritza babestea exijitzen dugu. Euskal Herrian 400 baserritar baino gehiago eta 63 udalerrri, jada, %100 transgeniko gabeak izendatu dira.

ELAk transgeniko gabeko nekazaritza eta elikadura defendatzen du, baita jendarteak transgenikoak dituzten elikagaien inguruan informazioa izateko eta kontsumitzen duena erabakitze eskubidea ere.

ELAk Euskal Herria %100 transgeniko gabea izendatzea exijitzen du. Deklarazio hau lege bidez egin behar da (bai Euskal Parlamentuan, baita Nafarroako Parlamentuan ere). Orain arte, Hego Euskal Herriko instituzioek ez dute jarrera egokia izan, izendapen hau egitea ekidin baitute. Deklarazio honek nekazal ekoizpenari eta kontsumitzen diren produktuei eragin behar die.



¿Qué es un transgénico?

Se entiende por transgénico un ser vivo que ha sido modificado genéticamente para lograr nuevas propiedades. Estos genes pueden ser de una especie diferente o propios del organismo modificado. Casi toda la producción de transgénicos la forman cuatro cultivos: soja, maíz, colza y algodón.

¿Qué consecuencias tienen los transgénicos?

Uno de los problemas fundamentales es que no existe una información suficiente sobre las consecuencias reales de la producción o de la alimentación transgénica, por lo que sería imprescindible la aplicación del principio de precaución, prohibiendo su desarrollo.

Sin embargo, sí se han probado determinadas consecuencias:

- En la agricultura llevan a la contaminación de la producción no transgénica, a la dependencia de quienes producen hacia las empresas multinacionales o al incremento de los costes de las semillas.
- En el medio ambiente suponen la reducción de la biodiversidad, el aumento de la utilización de productos químicos, cambios en la salud, en el comportamiento y en la capacidad reproductora de muchas especies.
- En la salud pueden suponer más alergias alimentarias, resistencia a antibióticos, impactos de los productos químicos, consecuencias en la capacidad reproductiva, etc.

Por una Euskal Herria libre de transgénicos

Exigimos que se proteja la agricultura 100 % libre de transgénicos. En Euskal Herria más de 400 baserritarras y 63 municipios se han declarado libres de transgénicos.

ELA defiende una agricultura y alimentación libre de transgénicos y del derecho de los ciudadanos y ciudadanas a tener información respecto a si los alimentos tienen o no transgénicos, para poder decidir el tipo de alimentos a consumir.

ELA reclama que Euskal Herria sea declarada libre de transgénicos. Esta declaración debe realizarse por Ley (en el Parlamento Vasco y en el Parlamento de Navarra). Hasta ahora las instituciones de Hego Euskal Herria no han actuado de manera adecuada, evitando realizar esta declaración, que debe afectar a la producción agrícola y a los productos que se consumen.

